

## **Burtsa eta poltsikoak**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-07-28: 3.

Gaur ez da Burtsa orain gizaldi bat bezain misteriotsua gertatzen, noski, gehienok badugu bere funtzioaren gutxi gora-beherako ideia bat. Definizio zehatza eskatzen badigute, ez dugu hiztegiak dakarrenarekin egokituko, baina aipatuko ditugu dirua, baloreak eta orokorrean ekonomian mugitzen den erakundea. Ez da gutxi. Hala ere, eguneroko gora-beherak telebistaz emanaldi garestian agerrarazteak baditu berez ikus-entzuleari berri puntuala eskaini nahi zaiola. Eta nire jakin ezatik sortu zait galdera: zenbatek ulertzen ote du ETBn agertzen den Burtsaren joko hori?, eta zenbati, niri bezala, sortzen ote die mezu horrek uler-ezin beraren harridura? Zeren eta Madril, Bilbo, New York eta Tokio burtsalekuetako datu baseak hain agertzen badira hasieratik ezberdintasun handikoak, eta gero sortzen diren igoera edo jaitsiera nola balioztatu? Sinplezia osoz galdetzen dut, zentzua duen informazioa pasatzen ez badigute eta, bestalde, norberaren poltsikorik ukitzen ere ez, zertarako jarri egunero gehiengo handia harridura beraren sorpresa haserrean?